ATXIKITZEKO FORMULARIOA

[ ] jaunak/andreak, bere izenean edo [ ] **(lizentzia zk.)** enpresaren legezko ordezkari gisa, IFZ: [ ], interesa adierazten du Ekonomia Sustapena Arloak eta Turismo Sailak sustatutako **Getxo gozatzeko planak 2027 kanpaina**n parte hartzeko. Horretarako, konpromisoa hartzen du bertan eskatzen diren baldintza guztiak betetzeko, baldintza horiek dokumentu honetan daude jasota. .

ENPRESEN KONPROMISO OROKORRAK

- Getxon egoitza edukitzea eta/edo Getxoren eskaintzari balio bakarra edo berezia gehitzen dion jarduera egitea.
- Enpresa gisa dauzkan betebehar guztiak egunean izatea eta indarrean dauden araudiak eta legeria betetzea. (Honetaz zalantzarik baduzu, deitu).
- GETXO jomugaren interes orokorren arabera jardutea eta horiek garatzen laguntzea, www.getxo.eus/turismo **esteka jarriz** dagokion hizkuntzan enpresaren webgunean. (Turismo Arloak argazkia emango du esteka lotu ahal izateko).
- Turismo Bulegoaren newsletterrean https://bit.ly/4jGl0cH alta ematea eta sare sozialetako gure profilak jarraitzea, programa honen online hedapena ezagutzeko.
- Hurrengo dokumentazioa aurkeztea, **2026ko abenduaren 4a baino lehen:**
  - ✓ Atxikitzeko formularioa sinatuta.
  - ✓ Enpresaren fitxa
  - ✓ Jarduera-fitxa/k. Enpresa bakoitzak gehienez **3** jarduera entregatu ahal izango ditu. (Bermatutako jarduerak (egutegia dutenak) ez dira kontuan hartzen 3 jardueren zenbaketan).
  - ✓ 6 argazki **berri** (*/**) jarduera bakoitza sustatzeko: 3 argazki formatu horizontalean eta 3 formatu bertikalean, formatu elektronikoan (jpg), bereizmen onekoak (gutx. 2Mb / gehi. 5 Mb). Ez da onartuko argazki berririk gabeko eskaerarik.
- Kanpaina osoan zehar
  - ✓ Programari atxikitako jarduerak egitea, <jardueraren fitxan> emandako datuen arabera; **atxikipena egin zenean zehaztutako baldintzak mantenduz** (datak, ordutegiak, prezioak...).
  - ✓ Turismo-sustapeneko kanpaina zabaltzen laguntzea (liburuxkak zabaltzea, Getxo Turismoren sare sozialetan egiten diren argitalpenetako edukiak partekatzea/komentatzea...).
- Hurrengo dokumentazioa aurkeztea, **2027ko kanpaina amaitzean:**
  - ✓ Jarduera bakoitzeko bezeroei egindako gogobetetze-inkestak edo horien balorazio-txostenak.
  - ✓ Erabilera estatistikorako eta/edo zerbitzuen baloraziorako eskatzen diren beste datu batzuk.

(*) Irudi pertsonala argazki edo beste edozein bitartekoren bidez hartzen duten pertsonen berariazko baimen frogagarria izan beharko du enpresak.

(**) Enpresak (edo irudiaren hartzaileak) bermatu beharko du titularrei berariaz jakinarazi zaiela irudi hori Getxoko Udalari lagako zaiola, "Sustapen Ekonomikoa" tratamenduan sartzeko, eta enpresa sustatzeko eta tokiko kontsumoa berraktibatzeko helburuaz erabiliko dela. 2. orrialdean azaldutako irudi horiek jasoko duten tratamenduaren berri ematen da.

EKONOMIA SUSTAPENA-TURISMO SAILAREN KONPROMISOAK

- Ekonomia Sustapena-Turismo Sailak enpresen atxikimendu-eskaerak aztertu eta onetsiko ditu honako hauek oinarri hartuta: programa bakoitzerako ezarritako gutxieneko baldintzak betetzea, proposatutako jarduerak Getxoren sustapen ekonomikorako estrategiarekin bat etortzea, proposatutako jarduerek Getxoko turisten eta bisitarien benetako eskaria eta/edo eskari potentziala izatea – merkatuaren joeren arabera –.

- Soilik onartuko dira kluben proposamenak, baldin eta Getxoko enpresa batek ere ez badu jarduera eskaintzen, eta jarduera hori interesgarria bada eta/edo balio bakarra eta/edo diferentziala ematen badio helmugako turismo-eskaintzari.

- Euskarri bakoitzaren edukiak (online eta offline) ezartzea, enpresek emandako informazioaren arabera, arloko helburuekin bat etorriz eta kalitate irizpideen arabera.

- Turismo Bulegoak erabakiko du jarduera bakoitzak zein hurrenkera eta espazio izango dituen. Enpresa bik jarduera bera eskaintzen badute, espazioa partekatuko dute online zein offline.

- Aurrekontua ematea honako hauetarako:
  - ✓ Kanpainan sartutako sustapen-euskarriak editatu, inprimatu eta zabaltzea.
  - ✓ Jarduerak/programak sustatzea eta zabaltzea sare sozialetan, www.getxo.eus/turismo webgunean eta beste batzuetan.

- Sustapen-kanpainatik kentzea, aldez aurretik idatziz abisatuta, hartutako **konpromisoak betetzen ez dituzten edota kalitateko zerbitzua ematen ez duten enpresen eskaintza,** gertakariak sortu dituzten eta/edo tokiko turismo-eskaintzaren irudi orokorra kaltetzen duten enpresena.

ENPRESA:

Sinadura eta zigilua

Idoia Belasko Pérez

Ekonomia Sustapenaren arduraduna

Elisabete Basañez Pérez

Ekonomia Sustapena Arloko zinegotzia, OAC, Punta Begoña Fundazioa eta Ekitaldiak Bide Publikoan

- Sinatzaileak baimena ematen dio GETXOKO ENPRESAK izeneko tratamenduari bere datu pertsonalak tratatzeko. Tratamendu horren baldintzak jarraian zehazten dira, eta informatutzat jotzen dira ondorio guztietarako.

Zure datuak "EKONOMIA SUSTATZEA" tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxoko Udala da (Foruak kalea 1, getxolan@getxo.eus) eta helburua du udalerriko enpresen sarea bultzatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzea da. Datuak arduradunarekin zuzeneko lotura duten erakundeei, Lanbideri, SPRIri, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eman ahal izango zaizkie. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak